

Maribi Arregi Zufiria

*Oñati,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea

Biografia



Atzeko Kaleko Juanitosa dendan jaio zen. Aita kale bereko Urrutxunean jaio zen. Ama berriz, Zufirianeana. Hamar urte arte Benediktina mojen eskolan ikasi ondoren, merkataritza, dekorazio eta joskintza ikasketak egin zituen. Bizi guztia eman du dendari lanean, denetik saltzen. Bittor Perosterenarekin ezkondu eta hiru seme alaba izan zituzten.

Zintak

ONA-111

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-01-22
- **Iraupena:** 107 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

ONA-160

- **Proiektua:** Gerra Gogoratu Guran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-01-23
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Juanitosena denda birramonak ireki zuen

- **Erref:** ONA-111/002
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

<p>Aita Urrutxuneko etxean jaio zen. Aitajauna Araotzekoa zen: Bittor Arregi. Juan Candaudap birraitonaren kontuak: Juanitosena dendaren izena nondik datorren; karlisten eta liberalen arteko liskarrak; pospolo lantegia kendu zioten eta ezkutatu egin behar izan zuen. Josefa Antonia birramonak jarri zuen denda.</p>

2. Juanitosena zein tokitan egon zen

- **Erref:** ONA-111/003
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Zein tokitan egon zen Juanitosena denda: Arrueren etxea, Urrutxu eta oraingoa. 1911. urtetik dago oraingo tokian; aitonak erosi zuen lokala.</p>

Transkripzioa

- Urrutxun, lehenengo zuk gaur esan dostazun etxian, "Arruen etxia"

esaten geben guk. Lehenengo dendia han ipiñi zan baiña gero Urrutxun, eta Urrutxun euki eben dendia, aurrera etarateko famelixia.

- Eta Arruena zein da?...

- Zure etxetik, ez. Zure etxia, bai. Zatik hori be Arrena zan. Eta hor euki eben lehenengo dendia baiña oso denpora gutxixan, denpora gehixau euki eben Urrutxunian.

- Orduan, Aixkirri dendia izan zan, horren...

- Horren bai, bueno, bai bai, baiña bueno handik denborada batera bai, asko. Bueno, nik eneben ezagutu, esaten dotsut, zatik oiñ daudena, Juanitosiena, oiñ dauena milla bederatzirehun ta hamaikan erai zan. Orduan bestia desagertu zan lehenau, baiña Aixkirriko dendia egon aurretik besten bat be egon zan, nik uste dot, besten batzuk be egon zian. Nik uste dot, bai nik uste dot besten batzuk be egon ziala. Baiña horren buruz nik eztakitt asko, nik Aixkirri ezagutu neben. Eta gero, guria, hoixe milla bederatzirehun ta hamaikan gure aittaittak, osea, aittaitta Bittorrek, Bittor Arregik erosi eben hiru etxe, eta horrekin iñ eben bat, ta horren azpitan dau dendia. Dendia gaur da atzekaldera eta aurrekaldera emuten dauena. Eta aittaitta Bittorrek erai ebenian, araoztarrak esaten ebeiñ: "hori ezta Juanitosiena, hori Bittorrena da!". Zatik, klaro, Bittor araoztarra zan eta eurok esaten ebeiñ: "Bittorrena da!".

- Baiña aurretik zan Juanitosiena.

- Klaro, Juanitosiena, baiña esaten dotsut zeatik. Josefa Antonia Garikanok ipiñi ebelako, gizonak iges iñ ebenian.

3. Ama, errementariaren alaba; gurasoek nola ezagutu zuten elkar

- **Erref:** ONA-111/006
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:07:48. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Amaren kontuak: errementariaren alaba zen. Aitonaren tailerra, Trianan. Apotzagako amona. Ama non jaio zen. Bere gurasoek nola ezagutu zuten elkar: Ama Frantzian egon zen ikasten, eta Madrilgo familia bati frantsesa erakusten zegoen, Huelvan. Aita, berriz, kartzelan; hari zerbait eramateko eskatu zioten.</p>

4. Ikasketak: merkataritza, dekorazioa eta joskintza

- **Erref:** ONA-111/008
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Eskolako kontuak. Benediktinetan ikasi zuen lehenengo. Merkataritza gero, Donostian. Horretarako lehenengo Oñatin prestatu zen, eta ondoren Mariaren lagundian, Bergaran. Pedro Oleaga. Dekorazioa ere ikasi zuen, postaz; arropa moztzen eta egiten ere bai.

5. Dendako lanetan gustura; denetik saltzen zuten

- **Erref:** ONA-111/009
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:16:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Beti gustatu izan zaio dendako lana. 11 urterekin hasi zen dendan lanean, aitaita Bittorrekin. Jostailu denda moduan hasi zena bazar bihurtu zen. Denetik saltzen zuten, 1979 arte: janaria, haziak, burdinazko gauzak, papera... Lentejak, ehunezko zakuetan.</p>

6. Jergoiak, koltxoiak eta artilea

- **Erref:** ONA-111/010
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:16:51. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Jergoiak (lastairak) egiten zituzten baserritarrek neguan. Horretarako materiala saltzen zuten dendan: malgukiak... Udan jorratzen ziren koltxoiak; haria saltzen zuten, orratz bereziak... Mertzeria ere bazen. Artilea saltzen zuten asko. Anekdotak.

7. Denda, gerra aurretik I; bankua

- **Erref:** ONA-111/011
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Banketxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Meza-liburuak, arrosarioak, lumak... saltzen zituzten. Perfumeak egiten zituzten. Gerra aurretik, aitajauna eta amandrea seme zaharrenarekin zeuden dendan, Joxerekin. Gozogintza ikasten ari zen beste seme bat; Bartzelonan almendra-negozioa jarri zuen. Roxita izebaren denda. Banco Bizkaia ere beraiena zen, baita Vascongadas aseguruak ere. Gerra garaian kendu egin zieten dena. Bankuko itsulapikoak eta giltza.</p>

8. Denda, gerra aurretik II

- **Erref:** ONA-111/012
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:24:19. **Bukatu:** 00:29:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Dendan gerra aurretik saltzen zituztenak aipatzen jarraitzen du: likore eta ardo barrikak; perfumeak eta sukaldarako ontziak; kalamua, txorientzat; gozokiak; espeziak. Kanpotik ekarritakoak: saltxitxa alemaniarrek, luma estilografikoak. Bitartekari gabe egiten zuten lana: bordatuak Suitzatik eta Txekiatik kristala. Gerra garaian galdutako paketea. Bere jaunartzea.

9. Denda, gerra aurretik III

- **Erref:** ONA-111/013
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:29:17. **Bukatu:** 00:31:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Bitxiak: Madrildik ekartzen zuten urrea. Txekiako kristala, Babariako portzelana... Joxe Arregi. Lanparak. Ontziak non erosten zituzten. Oinetakoak, galtzerdiak. Barruko arropa.</p>

10. Gerra garaiko sakeoak; familiaren historia

- **Erref:** ONA-111/014
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:31:54. **Bukatu:** 00:35:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian bi aldiz hustu zuten denda, sakeatu. Emakume bati esker, gauza batzuk berreskuratu zituzten. Aitita kartzelan zegoen, osabak Langileen

Batailoian... Aita Gijonen zegoen gerra hasi zenean; Santoñan harrapatu zuten gero. 1941etik aurrera, dendan egon ziren gurasoak. 1966an ezkondu zen, eta dendan jarraitu zuen. Beste denda bat jarri zuen, osagarri bezala: ehun-denda.

11. Bezeroekin gertuko harremana I: gerra ostea

- **Erref:** ONA-111/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:35:06. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean errazionamendu kartilak zeuden. Bezeroekin zuten harremana. Astero joaten ziren baserritarrak. Araoztarren jantzetxea zen denda; Eskolatxonean uzten zituzten astoak.</p>

Transkripzioa

- Gerra ostian, lehen komentau dotsutena, kartilla rasionamentukuak euzen. Ta harremana, bezeruakin, zan famelixan moduan. Etzan, oingo moduan, oiñ hotza da, lehen ez, lehen oso, bezeruak zian famelixakuak. Astero, etorten zian baserritarrak astuakin, nahiz edurra iñ, polainakin eta gure etxia zan araoztarren jantzetxia. Gure etxera asko etorten zian, gure etxera etorten zian asko.

-Mendiko kaleen ta...

-Askok izten ebein Eskolatxuenian astuak eta gure etxera etorten zian. Itten zan, ni gogoratzen naiz beti, lapiko bat egoten zan beti saldiakin, zapatu guztietan garbantzuak saldiakin. Zatik ba hoixe, baserritarrak neguan hotzak etorten zianak ba saldatxua hartu ta gero erreauak iñ. Polainak itxi sukaldian exeritta sikaketan, eta ia errekaak akaboten ebeinian polainak jantzi ta berriz gora. Eta geukan bezero batzuk ia fijuak, bueno, Rosari Enparantzakua ha famelixakua zan, baiña Marijuana, Zumalde ez, zeekua... Araotzekua be bai, Maiñakua, eta zure amama, eta horreik danak be etorten zian.

-Amama Fermina?

-Bai.

12. Bezeroekin gertuko harremana II: baserritarrak

- **Erref:** ONA-111/017
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:40:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Janztetxe moduan erabiltzen zuten denda bezero batzuek. Polainak eta abarkak kendu, eta zapatak jantzi. Errazionamendu kartila. Baserrietan dirurik ez zegoen, baina janaria bazuten: babarruna, gazta, arrautzak... Garaikoetxea gozotegikoek arrautzak erosten zizkieten karean sartzeko. Pastel Peregrinoren formula nork daukan. Baserritarrek trukea egiten zuten, eta ordaintzeko larri ibiltzen ziren.</p>

13. Bezeroekin zuten harremana III: fakturak banatzen

- **Erref:** ONA-111/019
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:41:09. **Bukatu:** 00:42:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Familia aberatsek ere kontua zuten dendan, eta hile bukaeran ordaintzen zuten. Bera bizikletan ibiltzen zen fakturak partitzen. Garai, Cegasa... Diruz ordaintzen zuten.</p>

14. Bezeroekin zuten harremana IV: etorkinak

- **Erref:** ONA-111/020
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:45:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Lehenengo etorkinak, galiziarrok. Apopilo egoten ziren. Mutil batek aitari eman zion dirua, soldadutzan zegoen bitartean gordetzeko. Eskutitzak idazten zizkion bati, eta irakurtzen erakusten zion beste bati.</p>

15. Harremana aldatu egin da

- **Erref:** ONA-111/022
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:45:41. **Bukatu:** 00:46:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Oñatik 8.000-9.000 biztanle zituen, baina lehengo harremana ezberdina zen.

Zergatik aldatu den hori. Dirua nola gordetzen zen, kutxan. Erbestean zeuden familiei lagundu zien aitonak.

16. Errenta ordaintzeko modua: kapoiak, bildotsa...

- **Erref:** ONA-111/023
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:46:43. **Bukatu:** 00:49:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Santo Tomas egunean eta Pazkoa astean errenta ordaintzea nola egiten zen: kapoiekin, arrautzekin, bildotsarekin... Aitajaunak bitartekari lana egiten zuen. Kapoiak hil, eta Donostiara bidaltzen zizkioten etxejabeari, errekadistarekin.</p>

17. Dukearen erosketak; haziak

- **Erref:** ONA-111/024
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:52:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Dukearenak ere joaten ziren dendara; erosketak egiten zituzten, eta dukea joaten zen ordaintzera. Likoreak, turroiak. Haziak, baratzerako botika... Udan tomatea potetan sartzen zen; kortxoak eta azidoa. Gramoka jartzen zituzten. Azukrea kiloko poltsatan sartzen ere ibiltzen ziren.</p>

18. Lehengo dendak eta negozioak I

- **Erref:** ONA-111/026
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:56:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Inguruan zeuden dendak aipatzen ditu, Etxaluzetik hasita. Ziordiena fruta denda, Danbortxuena, Agirrebalzategi, Milikuena, Santosena... Kooperatiba, Oleagena, Galarzaren botika, Lukasena.

19. Gabonak: lehen pinua eta turroiak

- **Erref:** ONA-111/027
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:56:21. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetako lehen pinu naturala beraiek jarri zuten dendan. Sakrilegioa zen orduan, erlijioaren kontrako ikurra zelako. Kritikak izan zituen. Misiolari oñatiarrei eta erbestean zeuden familiei turroiak bidaltzen zizkieten. Frantziara edo Londresera joatea ilargira joatea bezalaxe zen orduan.

20. Lehengo dendak eta negozioak II

- **Erref:** ONA-111/029
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:03:26. **Bukatu:** 01:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Alhondigara joaten ziren arbitrioak ordaintzera: barrikak, azukrea... Fakturak. Estanku zaharra. Goiko estankoa. Osaba Pericok kontatzen zuen pasadizoa: neska bat nola hil zuten. Letamendi, Claritarena... Fonda Ona, Bujeruena...</p>

21. Lehengo dendak eta negozioak III; bakailaoa

- **Erref:** ONA-111/031
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:08:45. **Bukatu:** 01:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Kale Zaharreko dendak, eskuma aldekoak. Yarza, Lasa, Rakelena... Bakailaoa noiz eta non saltzen zen, eta nondik ekartzen zuten; beraiek asko saltzen zuten, eta Egañarenak ere bai.

22. Lehengo dendak eta negozioak IV

- **Erref:** ONA-111/033
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:10:59. **Bukatu:** 01:12:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza

Laburpena:

Hankaluzena denda desagertu da... Silleroena, alpargateroarena, konfiteroarena... Egañena da aldatu ez den bakarra. Txokolateriak: Zahor, Orbea. Harategiak: Joxerena, Migelena...

23. Bosgarren belaunaldia dendan

- **Erref:** ONA-111/035
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:13:50. **Bukatu:** 01:15:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Orain Plazaola dagoen lekuan alpargateroa zegoen. Tabernak eta bankuak. Juanitosena dendan bosgarren belaunaldia dago lanean; beste denda batzuen kasuak: Kirrinena, Santosena, Letamendirena...

24. Dendariak ferietara elkarrekin

- **Erref:** ONA-111/036
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:15:29. **Bukatu:** 01:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Erretratu bat, dendariak agertzen direna, aipatzen du Maribik. Dendarien elkarteak. Ferietara joaten ziren dendariak, Bordelera eta; parranda ere egiten zuten hala.</p>

25. Ikasketak II

- **Erref:** ONA-111/038
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:18:08. **Bukatu:** 01:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Hiru urterekin hasi zen Beneditinetan, eta hamar arte. Gero, Bergaran interna egon zen. Bartzelonako ikastaroak. New Yorketik lore apainketarako liburuak bidaltzen zizkion Enrike Arana taxilariaren alabak.

26. Dantzak eta bekatuak

- **Erref:** ONA-111/040
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:19:52. **Bukatu:** 01:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Umetan plazan egiten zuten dantza, bandarekin. Zer egiten zuten gustuko mutilekin dantza egiteko. Garizumako debekuak eta kongregazioak. Beraiek ez zieten kasu handirik egiten; bikinia. Jazbana, Bergaran. Txokoko festa.

27. Auzoetako jaietara: Araotz, Murgia, San Pedro

- **Erref:** ONA-111/041
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:22:12. **Bukatu:** 01:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Auzoetako jaietara ere joaten ziren. Bezero baserritarrek gonbidatuta. Araotzera, Murgialdaira... Ezkondu zen urtean, 23:00etan etxean egon behar zuen. San Pedroko jaietara, trenbidetik.</p>

28. Debekatutako filmak eta treneko abentura

- **Erref:** ONA-111/042
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:23:12. **Bukatu:** 01:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

"Lo que el viento se llev&ocute;" pelikula ikustera joan ziren Eskoriatzara, eta

ez zieten sartzen utzi. 3 R zen. Bueltan, trena trenbidetik irten zen, eta oinez bueltatu behar izan zuten. Mutilek atera zituzten trenetik; haiek neska-lagunei bisita egiten egonak ziren, Arrasaten eta.

29. Senarra nola ezagutu zuen

- **Erref:** ONA-111/045
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:27:20. **Bukatu:** 01:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Senarra nola ezagutu zuen kontatzen du. Bergaran, Errege bezperan, dantzan. Autoa zuen bakarretakoa zen Oñatin. Soldadutzara Afrikara bidali zuten, eta egunero idazten zion. Lehen presa zuten ezkontzeko, dena bekatua zelako.</p>

30. Dendaria izatea, polita baina gogorra

- **Erref:** ONA-111/048
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:33:52. **Bukatu:** 01:36:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Denda gustatzeko, bertan jaioa izan behar dela dio. Dendaria izatea oso gogorra da, asteburuetan ere lan egin behar delako. Beti paketeak jartzen, erakusleihoak prestatzen... Cadiz turroiak.</p>

31. Mendira joatea eta hondarra saltzea

- **Erref:** ONA-111/049
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:36:12. **Bukatu:** 01:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Mendira asko joaten ziren: Arantzazu, Urbia, Usako... Jaumendira ere bai. Harriekin hondarra egin, eta saldu egiten zuten, sukaldeko txapa garbitzeko. Txakur handia. Caritasen kobrezko baleak, gerra ostean, janaria lortzeko.</p>

32. Errazionamendua; garbantzua, azukrea, kafea eta olio

- **Erref:** ONA-111/051
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:38:38. **Bukatu:** 01:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamendu kartila ezberdinak zeuden. Garbantzua eta babarrunak Leonetik, zuzenean; gero, bitartekariak sartu ziren. Azukrea, Bilbotik. Kubako azukrea, ehunezko zakuetan. Kafea ehotzen zuten. Hankaluzenean kafea erre egiten zuten. Olio bidoietan etortzen zen; marmita formako edukiontziak zituzten olioarentzat; bonbarekin, botilara.</p>

33. Ona Fondako giroa; udatiarrak

- **Erref:** ONA-111/052
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:41:40. **Bukatu:** 01:43:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Ona Fondakoak familiakoak ziren; errepresentanteak egoten ziren. Udatiarrak ere bai. Bezero onak ziren; oporren bukaeran ordaintzen zuten, dena batera.</p>

34. Joskinak, pentsiorik gabe

- **Erref:** ONA-111/054
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:43:52. **Bukatu:** 01:46:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jostunek ez zuten pentsioa kobratzerik; atzera begirako eragina zuen legea atera zutenean, bai: paperak egin zituzten dendako bezeroak zirela esanez. Neskazaharrak ziren gehienak. Beharrak ere ezberdinak ziren lehen: berokiak, bizitza osorako.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com